



II Urtea

1920'ko Jorrailla

XVI Zenbakia

KRISTAUEN PAZKOA



ENBAKI edo; numero au artu orduko, irakurle maitekor ori, guztia aldaturik edo laixter aldatzeko egongo da eliza katoliken bafuan; atsekabezko edo samintasunezko margo edo koloreen ondotik kolore txuria ikusiko dezute; Garizumako eresi (kantu) ilun itzala mututuko da, ta ofen ordeiz elizako bazter guztiak Jesus'en Garaitza gogorazten diguten eresiak (kan tuak) beteko dituzte; itz batean guztia alai ta jai antzekoa izango da.

Ta zergatik izango ote da Eliza katolikoak olako alaitasuna erakustea? Onexegatik da, Pazkozko jaiak Elizak egiten ditu, Pazko kristau-eguna da.

Zer al da Pazko Kristaua?

Il ta irugafen egunean Jesukristo gure Jauna ilen artetik piztu bai zan, ofetxen urtebetetzea da Pazko kristaua.

Zer adierazten du Igaratz edo Pazko itzak?

Pazko itza ibirtat edo ebreoen izkuntzatik dator ta Igarotze edo Pasatzea esan nai du. Egun ortan jai egiten zuten gogora ekafiaz, nola berak Ejipto'n zeudenean luf aiek bafena Aingeru Soiltzalea andik igaro edo pasatu zan juduai gaitzik egin gabe; baita ere gogora ekartzen zuten Ejipto'tafen mofontzatik orduan iges egin zutela; orobat Itxaso Gofia busti gabe erditik

oñez igaro, pasatu, zutela; egun ontan Jesus'en irudia zan Pazko-bildotsa jaten zuten; Pazko ori gurearen irudia zan. Gañantzi edo importantzi aundikoa izan zan Juduentzat Itxaso Gofia igaro edo pasatzea; baño gure Igaratz edo Pazkuak beste igarotze edo pasatze aundi ta begiragafiagoa gogora ekartzen digu, au da, Jesus'en eriotzatik bizitz zoriontsura igarotzea; baita ere pekatuaren kate galgafiak autsi ta Satanas'en mofontzatik Jainkoaren semeak duten azkatasun edo libertadera igaro ta pasatu giñela.

Eliza Katolikoaren elizkizunetan Pazko egunak zer gañantzi edo inportzi dauka? Guztiz aundia, Eliza katolikoaren jaien artean aundiena ta nagusi-ena da-ta: *Au da Jaunak prestatutako egun aundia; gure Jaun Jesukristo, gizona danez, Piztuzea*. Auxe abestu edo kantatzen du Elizak Pazko-egun goizean. Zeruan distiatzen duten izañen artean eguzkia dana da Elizaren jaien artean Pazko eguna.

Ta zer al da Pazko garaian Eliz Ama deun edo santuaren biotza betetzen duana?

Garizuman ilun ta atsekabez beterik ikusi degun bezela orain poz deunak gañez eginta ikusten degu, Jesus'ek eriotza ta gure animen jabe gogofa zan Satanas garaitu ditualako. Bada eziñezkoa iduri-añen, Jesukristo'k il-ta eriotza garaitu zuan: ofegatik Pablo Apostoluak eriotzari itz egiñaz au dio: *Ubi est, mors, victoria tua?* O eriotza, nun dago zure garaitza? Bada Jainkoaren Semea atzemanaz ezerezturik gelditu zan. Absorpta est mors in victoria.

Baño gure animen eriotza bere eriotzaz ezereztu zuan bezela, era berean Piztuera goragafiaz bizia itzuli zigun Pazko eguneko Mezaren prefazio edo jaupauñean Elizak abestu edo kantatzen duan bezela: *Et vitam resurgendo reparavit*. Ta piztean bizia itzuli zigun. Ez itzala bēzela igaro ta egun bateko lorearen antzera igartzen dan bizi au: egia da au ere eramangariagoa egin digula, ala ere Jesukristo gure Jaunak irabazi diguna da betiko bizitza, azkenik eztuan Zeruko bizi zoriontsua. Ofetxegatik Elizak Pazkoz egiten duan jaiak zeru antza dauka; jai ofetan lendazfanik nolabait ere Zeruko atsegiñak gozatzeraz ematen dizkigu.

Zer irudien bidez gogorazten digu Elizak Jesus piztua?


Jesus piztuaren irudia da Pazkoetako Tortxa edo Zirioa ain bedeinkazio eder begiragafiaz Larunbata Santu goizean bedeinkatzen duana. Elizako tokirik nagusienean, jaupaltegi edo presbiterioan jartzen da ta an 40 egunez Jesukristo'ren piztuera adierazten digu. Gañak adierazten du gorputzarekin beñiz piztean batutako Jesus'en anima ta tortxak Jesus'en gorputza.

Jesus il ondoan ukendu usai gozokoez gantzutu edo unjitu bai-zuten, onetxan irudia dira inzensu edo kedatzezeko ale edo pikoñak; zuloak beñiz Jesus'en oin-esku ta saietseko zulo santuen irudiak dira.

Zein eresi edo kantuz azaltzen du Elizak bere alaitasun deun edo santua?

Eresi edo kantu au da Aleluya ta, *Jaungoikua goratu edo alabatu dezagun*, esan nai du. Eresi au dana zerutara da; Juan Apostoluak Patmos deitzen zan ugarte edo islan entzun zien zeruan daudenai Jaungoikoak egin zion Agefaldi batean: ofegatik zeruan daudenak egiten duten biziaren iru-

dia dan Pazko-garai onetan Eliz Ama deunak ain sañitan, maiz, ibiltzen du ta esaten du; besterik eztakila ematen du; ortaz gañera ezpaita gizoren iz-



Lakoste zanaren, orain J. Roig'en argirudia.

JESUS'EN JETSEMANI'KO OTOITZA.

kuntzetan ain labur ta egoki bai Elizaren poza, bai bere indafez iñen artetik piztu zan gaizkatzaile edo salbatzailearen garaitza alierazi dezakenik.

(Atxurik itzulia)

TUDELA'TAR K. A. O. M. CAP.

Jesukristo Jaungoikoaren Semea

*Jesum Christum Filium
ejus unicum. Symb.*

*Baita ere sinistendel Je-
sukristo bere Seme baka-
rragan.*



Jaungoiko iru lagunetatik nor egin da gizon?—Jaungoiko iru lagunetatik bigarrena egin zan gizon, au da Semea.—Aita egin al zan gizon?—Ez jauna.—Espiritu Santua egin al zan gizon?—Ez jauna.—Nor egin zan ba?—Semea bakarrik eta oni gizon egin ondoan Jesukristo deitzen zaio.—Orduan, Jesukristo nor da ba?—Jesukristo da Jaungoiko biziaren Semea, gu erosteko ta guri erakusteko gizon egiña.

Jesukristo da Jaungoikoaren Semea.

Sortu zan orduko esan zion Aingeruak Maria bere Amari nor izango zan Jesus. «Zure sabelean sortuko dezu, ta argitara emango dezu Seme bat eta izena emango diozu Jesus. Au aundia izango da ta *Goienekoaren Semea* deituko dute... Alaxe, ba, zuregandik jaioko dan santu edo deunari *Jaungoikoaren Semea* esango zaio.»

Gizonik ezagutu etzuan Ama afigari afengandik Aingeruak esandako aufa jaiotzean befiro agertu zan Aingerua, oraingoan Belen'go artzaietara, ta esan zien: Gaur jaio zaizute Goratzalea, au da Kristo Jauna, Dabid'en irian.» Eta ganbela batean ba-dago ere aingeruak lena ta ufena artzaiak eta geroxago iru efegeak an dijoaz beren Jaun eta Jaungoikotzako adoratzera ta aguf egitera.


Jaungoiko Aitak ala esan du.

Bi aldiz ots bat bera entzun zan Jesus'en gañean itz berberak esanez. Bein Jordan'go baztarean, Jesus uretik bataiatu ondoan atera zan bezala, judu sal aundia begira zegoala, Jaungoikoaren Gogoa edo Espiritua uso antzean jetxi zan Jesus'en buru gañera ta zeru goitikan ots au entzun zan: *Au da, nere atsegiña izan dan nere Semea.*» Onela Jaungoiko Aitak bere efitar askok aditzen dutela jakitera eman zuan nor dan Jesus.

Beste bein Jesus'ek berekin eraman zituan bere ikasle maiteenak, Pedro, Santiago eta Juan aren anaia, Tabor mendiaren galuferaño. Eta ontan Jesus oso itxura aldaturik arkitu zan eta berarekin jolasean azaldu ziran Moises eta Elias, Lege zafeko bi gizonik aundienak. Afiturik zenden beriz Lege befiko Apostolu edo Bialdu aiek ikusten zutenaz. Ontan odei zuri-zuriak bildu zituan eta odeietik ots au entzun zuten: *Au da nere Seme maitea, nere atsegiña izan dana, entzun zaiozute berari.*

III-BEGIRA!!!

EUSKALTZAINDI EDO AKADEMIAK AGINDU DULAKO RR OR-
 :-: :-: DEZ R IPINTZEN DEGU TA LL ORDEZ Ļ :-: :-:



GURUTZE AZPIAN

Lakoste zanaren, orain J. Roig'en argirudia



Jesus'en adiskideak

Ots ori entzun baño len Pedro Santuak aitortu zuan egi au. Jesus'ek galdetzean nor diote naizela ni, erantzun zioten: Batzuk diote Juan Bataiatzalea zerala, beste batzuek Elias zerala, beste batzuek beriz Jeremias profeta edo Igarletakoen bat zerala.—Zuek ordea, nor naizela diozute? Aufferatu zen Pedro ta esan zion: *Zu zera Kristo, Jaungoiko biziaren Semea.* (Matth. XVI-14-16.)

Natanael'ek bere bañuko gauzen beria Jesus'ek bazekila ikustean esan zion: *Zu zera Jaungoikoaren Semea*, zure Israel'go Efegea. (Joan. I-49.) *Zu zera Jaungoiko biziaren Semea* lur onetara etofia esaten dio Marta'k, bere anaia Jesus'ek ilen artetik piztu baño lentxago. (Joan. (XI-27). Jesus'ek, itsaso afo nasia nola baretu zuan ikustean Pedro ta bere lagunak bere onetara erori zitzaizkion esanaz: *Benaz Jaungoikoaren Semea zera zu.* (Matth. XIV-33.)

Jesus'ek berak erakusten du egi au, argi ta garbi.

Jaiotzetik itxua izana sendatu zuan ondorean Jerusalem'go elizan beriz alkar topo egitean, Jesus'ek esan zion itxu izanari: Zuk siñisten al dezu Jaungoikoaren Sameagan? Erantzun eta esan zuan aiek: Nor da ori, Jauna, argan siñistu dezadan? Eta Jesus'ek erantzun zion: Ikusi dezu bera ta zurekin jolasean ari dana bera da. Eta esan zuan: Siñisten det Jauna. Eta belaunikatu-ta agur egin zion.» (Joan. IV-35 eta.)

Juduei askotan esan oi zien: «Esaten dizutet eta eztezute siñisten. Nik nere Aitaren izenean egiten ditudan egiñak auek adirazten dute nor naizen. Ezagungari baten biler dabil efi au ta ezagungaririk etzaio emango Jonas Igarlearen ezagungaria ezpada. Jonas nola iru egunez egon bai-zan afaiairen bañuan iru gau-egunez alaxe egongo da Giza Semea bera lufaren bañuan iru egun eta iru gauetz.» Onela erakusten zien gertatu baño len, nola il-ondoan iru egunez ilobian, il-ondoan herenik siñistu zezaioten.

Azkenean egi ori erakustegatik il zan gurutzean josirik eta piztu zan ilen artetik. Bazekin Jesus'ek etziotela Juduak itz ori ateratzea besterik nai biraularia bezala il-erazitzeko, baña Juduen Buru ziran Apaiz Nagusiak eta Eskribak galdetu ziotenean *Zu al zera Jaungoikoaren Semea?* Erantzun zioten garbi: *Zuek diozute ni naizela.* (Aien izkuntzan esan nai dute itz oiek, bai, alaxe naiz.) Egi ori erakustegatik eman zuan ba bere odola ta lafua.

Bera ill-ondoan egiztua.

Jesus il zan bezala iltzen ikustean ari begira zeuden soldaduen burua ta berekin zeudenak, lur ikara ta gertatu ziranak ikustean bildufez ziran, esanez: *Benaz ta zinez Jaungoikoaren Semea zala au.* Irugafen egunean ilen artetik pizturik ikusi zuten ezkeroz bere Ikasleak asi ta lur guziak ezagutu du bere egia ta agur egin dio Jaungoiko Seme oni.

Intza'r Damaso A. O. M. Cap.





“Ilen ezurak ileri berira,,

—OH—

ILEN ezurén aldatzea zala ta, eriko Efetore jaunak deitu zidalako etofi nintzan nere efira joan zan Abendubaren 16'an.

Argirik ez aldago edo ze?—galdetu nien nerekin zijuazen lagunei, zortziterdierarako emparantzara eldu giñanian.—Ez jauna, erantzun zidaten, zerbait matxura badela eta argirik gabe gaude.

Ilunpe-ilunpian bazirudien ila zegoela Oyartzungo efiya; neri beintzat ilunpe artan lengoen edo asaba ilen otsa entzuten nuala iruditu zitzaidan; «Miseremini mei, miseremini mei, saltem vos, amici mei...»

«Zuek badare efukitu zaitezte nere lagun maitiak; efukitu nitaz»

Ufengo goizean, eleizkizuna bederatzieta asi zan. Inoiz ikusi eztan erako gizaldea bazan antxen!.. Aski luze- zabal badare Esteban Doatsubaren eleiza, atea ireki bear izan zituzten jendea itoko ezpazan. Zer zala ta arkitzen zan Oyartzungo efi osoa bildurik?.. Zer zala ta goiz artan etofi ziran Oyartzungo eleizara Irun'dafak, Efendi'afak, Donosti'afak pilaka? Beren aurrekoen ezur' utsak iltegi befira eraman naiak eta asmoak bildu zuan alako gizaldea. Sei mila ta geio Oyartzu'afen gorputzak zeuden iltegi zafian lurpetuak eta aien ezurén aldatzea zan Abendubaren 17'an.

Meza luzea izan zan eta afitu nintzan eztulik ere eleizan entzuten etzalako. Bukatu ala itz ale batzuk esan biar nizkiela nere efitafei eta esan biar izan nituan. Lau bakafik esan nitun, biotza geyegi beratu ta xamurtu zitzaidan ta alako gizadi afen ixiltasun ta zintzotasunarekin. Esan nien bezela etzan orduntxen apeza edo praileen itzaldi beafik naiko itzak aurrekoen ezur'ak esaten zizkiguten ta.

Bereala gizonak launaka eta emakumeak atzetik pilan iltegi befi aldera abiatu giñan. ¡Antxen naiko nituan nik efitako ajolakabe ta buru afo guziok! Lazkofa, aundi izugafia elizjira edo prozesio uraxen 3.008 lagun en erdiyan ogei il-kutxatan eta beltzez estalitako zazpi gurdi aundietan sei mila gizon emakume, zar gazteen ezurak garamazkigun ta. Begiak zeruban eta biotzak ilen alde, ixil ibili zan jendea.

Gizapila iltegi befira etofi zanian eta ezurak ere sartu zituztenean Eri-ze'tar Martin Jaunak bere eleiztafei itzaldi gartsu-gartsua egin zien, ezufez beteta zeuden gurdietako batetik. Negafa begitan entzun giñuzen afen itzak.

«Requiescant in pace» «Goyan beude» abestu zuan efiak asaben ezufei azkeneko aldiz begiratuaz eta... sakabanatu ziran Oyartzun'dafak, kaletafak kalera, basefi'tafak basefietara eta afozak lagun en etxetara bazkal ordua zan ta.

¡Goyan egon bitez gure asabak!

Oyartzun'dar J. M. Aita O. M. Cap.



TOZ, ESPIRITUA



Ķiriarte'k bīdūa.

(Donosti'ar J. A. Ak, ereskidetua)

f Andantino

A - toz, Es - pi - ri - tu - a, A - toz,

gu - la - gun tze - ra. A - fen je - txi zai -

te - a Gu-re bi - o tze - ta - ra.

ATOZ, ESPIRITUA

Atoz, Espiritua
Atoz gu laguntzera
¡Afen! jetxi zaitea
Gure biotzetara.

Jauna, bete gaitzatzu
Zure emaitz ugariez,
Ta irazeki gaitzatzu
Zure su-gaf biziez.

Oi alaitzaile gozo!
Atsedan emailea!
Zu zaitugu neketan
Gure laguntzailea.

Zu zera betidanik
Maitetasuna bera,

Osoki etsigia (1)
Gu guzion aldera.

Oi! Zenbat argaltasun
Dan gure bafenetan!
Estu lotuak gaude
Pekatzuko katetan.

Bidali zaizkiguzu
Zerofen argi-izpiak,
Ta ala argituko dira
Ilunbe lazgarriak.

Griña gaiztoak beti
Garamazki gaizkira;
Zure laguntzak gaitu
Erakartzen ongira.
(1) (ekafia isufia)

Euskaltzaindiaren aginduz jartzen degu *r* tantaduna *rr* ren ordeztan eta *l* afai-
duna *ll* ren ordeztan. Argatik irakurtzean gogoan iduki, efi, efebes, biufi, afoa
aufa, gofa eta, dala onan berdiña, erri, errebes, biurri, arroa, aurr, gorra.
Oloa, olanda, tela, ibil, egile, ikulu, akuu eta, beste auk bezala, olloa,
ollanda, tella, ibilli, egille, ikullu, akullu.

Iñes Doatsua Garbia ta Lekukoa

IÑES Doatsua, amairu urteko Neska Garbia ta Lekukoa, Efoman jaio
zan. Beraren gurasoak oso kristau zintzoak, jaieratsuak, aberatsak,
jatofi argikoak ziran, eta oso asiera ona eman zioten. Berez oso ona
argia, garbia, jaieratsua, edefa, zoragafia zan. Ezaguerara eldu za-
nean Jesukristori oso eskeñi zan.

Doatsu afigafizko onek amairu urte bakarik zituan garaian, Jesukristo jaio zanetik irureun eta laugarfenean, Erómataren Agintari Diokleziano ta Maximiano biotz gogofen *erasoaldi guzierakoan*, Prokopiok, Erómako uriko agintari Sinpronio zeritzanaren semeak, Doatsuaganako zaletasunean suturik, Doatsuari esku-erakutsi aberats bat bialdu zion eta beraren eskua eskatu zion. Baña Doatsuak esku-erakutsi ura atzera biurtu ta ezetza eman zion.

Prokopiok orduan Iñes Doatsuaren etxera joan eta alegin guziak egin zituan berari baietza ateratzeko. Baña Doatsuak beti ezetza eman zion eta etxetik bota zuan esanaz: *Zoaz emendik, gaiztakeriaren akulua, zirika-tzañe eragitekoa, ilunpetako aitaren mendekoa, ni Zeru ta luren Egi-ñea, Jabea ta Zuzentzañea dan Jesukristori eskeñita nagota.*

Prokopio oso biotz-ilundurik biurtu zan etxera. Sinpronio Agintariak bere semeari zer gertazen zitzaion jakitean, seme ura asko maite zualako ta estai aiek bere gogokuak ziralako, Iñes Doatsuari bera etxera deñu ta oso afera ona egin ondorean, alegin guziak egin zituan onean, baña alperik, Doatsua eztaí aiek egitera ta jainko gezufezkoak agurtzera jartzeko. Eta onean etzuala ezer irabazten ikustean, asafe samañ esan zion: *Tira ba ogei ta lau orduko epea ematen dizut nere semearekin ezkontzea ta Erómako lenengo etxeoandrea izatea, edo eramankizunik aundienen artean bizia galtzea aututzeko.*

Iñes Doatsuak erantzun zion: *Jauna, oñenbesteko epearen bearik ez daukat nik ori aututzeko, aututa daukat eta. Oraintxe bertan azaltzen dizut, argi ta garbi, Jesukristo baño beste senarik ez dedala artuko, eta Zeru luren Egile, Jabea ta Zuzentzañea dan Jaungoiko guzialtsua baño besterik ez dedala agurtuko. Zure jainkoak ezertarako ez diranak dira, zurezko ta arizko gaiakin gizonak egindako irudi utsak, eta aritzekoa da ezaguera daukan bati jainko oiek agurtzeko agintzea. Nik ez daukat bizitza onetako eramankizun guzien bildurik. Nere gogo guzia da nere odola ta bizia Jesukristo'gatik ematea, eta lekukotasuneko buru-eraztuna garbitasunekoari ezartzea.*

Agintariak orduan asafe aundiaz esan zion: *Nere semearekin ezkontzen ezipazera, emakume galduen etxera bialduko zaitut, e'la antxe kenduko dizute zure garbitasuna.*

Iñes Doatsuak erantzun zion: *Jesukristo, nere Jainkozko Senara, guzialtsua da, bere emazte zintzoen garbitasuna ondo zaintzen dakiena; Berak gordeko nau ni zure asmo gaiztoetatik.*

Agintariaren aginduz berealaxe kate gogofez lotu ta nafazka bezala jainko gezufezkoen agurtokira eramán zuten. Baña Doatsuak jainko gezufezkoak agurtu beañean, Gurutzearen irudia egin zuan.

Agintariak orduan emakume galduen etxera eramán erazi zuan. Baña Jaunaren Aingeruak zaindu zuan an Doatsuaren garbitasuna.

Prokopio gaiztakeriak egiteko asmoaz Iñes Doatsuagana uferatu zan. Baña Doatsuari ukitu baño len ilda gelditu zan.

Agintariak miñ aundia artu zuan bere semea ala ilda ikustean; eta Iñes Doatsuari eskatu zion jañen! bere semeari bizia biurtutzeko. Iñes Doatsuak

otoitz egin zuan eta berealaxe ila piztu zuan. Prokopiok orduan aitortu zuan kristauen Jaungoikoa egiazkoa zala, beste guziak gezufezkoak zirala.

Jainko gezufezkoen apaizak orduan eria nastu zuten, esanaz, gertaera aiek sorginkeriak zirala, lñes sorgin bat zala, il beař zala, ta abaf. Agintariak bere semeari biurtu ziona iltzeko agindua ez ematearen, Aspasio zeritzan bere ordekoari agintea eman eta andik alde egin zuan.

Aspasiok jainko gezufezkoen, apaiz zorigaiztokoan eta eritxuaren go-goa betetzearen, lñes Doatsua bizirik efitzeko agindu zuan, eta su aundi batera bota eragin zuan. Baña su aundi ařek etzion ezertxo ere egin Doatsuari; eta, gañera, Doatsua su aundi ařen erdian Babiloniako iru mutil gazte zorionekoak bezela Jaungoikoa goratzen ari zan bitartean, su aundiaren gafak, ařigafizko eran zabaldurik, inguruko bořeroak eta beste siñisgabeko asko kizkaldu zituzten.

Jainko gezufezkoen apaizak eta eritxuak beriz ere lñes Doatsuaren eriotza eskatu zuten; eta Aspasiok Doatsuari berealaxe lepoa moztutzeko agindu zuan.

lñes Doatsuak orduan Jesukristori eskatu dion ainbat laisteřen bere eskeintza artzeko ta Beragana eramateko. Gero berari lepoa moztutzeko agindua zeukan bořeroari begiratu ta esan zion: *Atoz aguro, bat ere bildurik gabe, nere gorputz au iltzera, nere gogoak egaz egin dezan Zeruko betiko bizitza zorionekora.* Eta, azkenean itz auek esatean: *Jauna, ar zazu nere gogoa,* bořeroak lepoa moztu zion, eta bere gogo zorionekoa zuzen-zuzen Zerura joan zan.

Amairu urteko Doatsu Garbi ta Lekuko argi onen Gorputz il Agufgaria Eřomako kristauak begiramentu aundiaz artu ta lurperatu zuten. Jainkoak Doatsu onen *Il-obian* egintza ařigafizko asko lenengo egunetatik asita egin zituan, eta beraganako jaieratasuna laister zabaldu Eliza guzira.

Aita Eskoriatza O. M. Cap.

NERE MAITEA TXURI-GORIA

Dilectus meus candidus et rubicundus. Cant.

Loak artu nin dun
Apal-ondorean
Gaua etortzean.
Goiko ogi-ardoaz
Ase- moxkorturik
Artu nindun loak,
Maiteren biotzan
Etzanik burua,
Ardura-gaberik
Amets gozoetan
Nintzala gaxoa
Artu nindun loak.

Sutondoan pozik
Lotxo eztitsua
Egiten negoan,
Maiteren besoak
Seaska izanik
Maiteren biotza
Abeslari izanda.
TXorikume zurtza,
Biotza, otz-otzik
Esnatu zitzaidan:
«Nun zaude, eguzkia!
Nun zabilta, maitia?
Nun zaitut? esanik.

Maitearen bila
Laxter jaiki nintzan
Nornairi galdezka
—Jetsemanin nunbait
Aitari otoizka
Izango ote da?—
Ziotsan biotzak.
Zugatzei galdegin,
Arzulora joan
Gauko ilunpetan...
Abafots samina
Abeska-abesturik
Zegon zugaztia:
Odolezko intzaz
Arzulo-belafak
Zeuden goriturik.
T'ixil-ixilikan
«Aspaldi joan zan»
Zioten zugatzak;
«Joan zan aspaldi»
Zion arzuloak.
Zitori liraña
Kazkabar-ondoan
Gelditzen dan berdin
Gelditu zitzaidan
Ene bioztxo,
Basoko lilia.

Gogoak arturik
Maiteren gogoak
Cedrongo sakana
Igaro bai nuan.
Umetxo bat pozik
Aldapa bafena
Zetoren laxterka
—Aingerua al zera
Maitek bialdurik
Bilatzen nazuna?
—Amaren aldera
Ufengo etxera
Aguro noa bai:
Zitorizko txorta
Ementxe daramat.
—Mifa lore-pia
Izango al balitz...
Min bizik mingaña
Jan dion gaxoak
Bezela; nik itzak
Puska-puskaturik
Egiten nituan
Minaren indafak
Mingaña lotuta.

Altsatsun 5-III-20

Goi-gorantz igo, bai,
Gorantz igo nintzan.
Ufuti lapurak
Nabari nituan
—Maiteren aztarrik]
Esan nien bela,
Ezta leku ontan?
Maitasun-sukafak
Bai nauka arturik.—
Makia kenduta,
Makil-ukabilka
Ari zitzaizkidan.
iNi befiz ixiik!
Minik ez bai nuan
Ezerxtore izan
Biotzeko minak
Gorputza amosturik.

Aitzen det aiotsa:
«iMaita! iMaitea!»
Dei-deiezka il zan
Begiraka neri,
Arantzeko oyan
Etzanik burua,
Odolez jantzita,
Biotza usturik.
Minex txoratua,
Laztandurik onak
Nere besakadaz
Bizitzari eutsi
Nai nion gaxoak;
Negafex santsoka
Azkar uste nuan
Maita esnarazi.
Alpefikan bafia;
Azkeneko loa
Egiten bai-zuan.

Ordundik, ordundik,
Txorikume zurtza,
Gurutze garayan
Det nere kabia.
Giro ona dalarik
Gurutze muñan
Abesten-abeska
Gabaz ta egunaz
Egoten naiz beti.
Giro txafa dala
Biotz arzuloan,
Txokoan-txokoan,
Izaten naiz befiz.

Altzoazp'tar Did. Aita. O. M. Cap

GORA BIRJĪÑA MARIA GURE ATSEGINGARĪA

GUAM 1919'KO ORĪLA

BERIAIN'DAR JOAKIN M^a. A A. KAPUTXINOEN A. PROBINZIAL

TXIT AGURGARĪA

IRUÑA'RA.

AITA Probintzial txit agurgarĭ ta maite ori:

Laxter urte bat ba-du Jaungoikoak ala nai-ta Aita Nagusi zerala ta ala ere oraindik eztizut diosalik egin ezta ere nere burua eskeñi. Gaur uts au betetzera noa. Eta aŭfen-aufena belaunikaturik muñ egiten dizut eskuan eta eskatzen dizut zure onespena edo bedeinkazioa; eta eskeintzen natzai-zu nitaz naiko dezun guztietarako.

Ba da-kizu Ugarte'ko Efi buruan, Agaña'n bizi naizela. Uri ontan bere-an gaude gaurkoan beintzat Gotzai Jauna, lau Aita gazteak eta Iraizoz'tar Toribio eta Inbuluzketa'tar Krispin bi anaiak. Urbilengo eſian dago Bizente Aita; bi elizen buru da bera, Agat eta Sumay'koa, Merizo'n bizi da Kanals'tar Kristobal Aita, balentziaſa, onen kontura dago Umatag'ko eliza. Hinara-jan'en dago Apaiz Ugolino Aita. Gaur bertan edo biar joango da Eliz artako Apaiz izatera Zuñiga'tar Anselmo Aita; eta Ugolino Aita etofiko da onera Agaña'ko elizako Apaiz Aita izatera. Beste Aita auetaz eztatigu oraindikan deus. Gaur berean bukatuko degu ikasi ondoan bigafen aldiz ikusi-ta Txamofo Eliztia edo gramatika; eman degu ba iru aldiz 50 egunetan. Elizti au Olendorfen erara egin det; eta berak egunero pixkaka artzen zuten, eguneko bi ikasgai; eta ala ikasi dute nerekin. Jaungoikoari eskeſak ondo dakite; eta egiz esan dezaizuket txamoferaz obeto itzegin dezaketela lateraz edo panti-zeraz ta baño. Orain itzegiaren beafean gaude, Jaungoikoak ones laster egingo degu. Ezin esan noizko; nere bizkaſ gañean zama aundia daukadala-ko. Baño ala ere lan guzia dago artutako itz bakoitza bere tokian sartzean, iru edo lau idazti edo liburutan daukateta. Beste lanik gabe geldituko ba-nintz eta Kaputxino oiturara zazpi ordu baneuzka gelan egoteko, 15 egunetz bukatuko nuke.

Etofi zaizkigun Aitak oso onak dira ta Misiolari gai egokiak. Noranai joan eta ere ondo artuak izango lirake; ta Efi buru ontan geldituko ba-lira, ainbat obe; emen lan asko dago ta. Anselmo Aita da Txomofo elea obeto da-kiena; ofengatik ezteike deus esan besteaz, non-nai itzegiten dute. Igandero ateratzen dira uſutiko auzoetara, meza ematen dute ta itzalditxo bat irakufi edo leitu egiten dute txamoferaz. Baita joaten dira an-emen dauzkagun kristau ikastietara edo dotriña lekuetara ta oso ondo erakusten dituzte kris-tau ikastia ta abesti edo kantuak.

Ontarako asko laguntzen digu laterazko eliz-kantu guztiekin erderazko batzuekin eta irurogei ta amabost txamoferazkoakin irafirik daukagun liburu batek. Bai eztala len bezala, bat banaka gerok artu beaſ.


Bidenabaſ esango dizut efi au oso elizkoia dala; asko nai digutela guz-tiak, berexi gabe; irudi du lorategi bat gaurko oztasunaren erdian. Emen abesten edo kantatzen dira gergorierako mezak, baita *Requiem*'goa ere lĕen

Otoitzaldiarekin eta eliz-legezko edo bestelazkoaz gañera. Aitak afiturik gelditu ziran Txamortafen eratzasun au ikustean. Jaungoikoari eskefak!

Emen nai bezala gordetzen dira Alkartasunak eta egiten dira elizkizunak, elizjirak, ezkontzak, ileetak; ezta inoiz eliz-sariaz ezta-baidarik; meza-sariak eman al baño iru aldiz geiago. Au da Jauja: edo obeto esateko, au da Paradisua edo Gozategia.

Aitetaz zerpait geiago. Luis aitak gorapen aundia eman digu bere piano jotzeaz eta pantzeraz jakiteaz. Gaur arte erdizka genbiltzen (ea igafi, ni

Nexka-mutil Guñamdarak.



nintzan Organistarik oberena); eta orain Jaunaren mesede ori etori zaigu. Eraentzale edo Gobernadore ta efiko buruen afean jo zuan afeke egunean, baño ain ederki, buruz, guztiak afiturik gelditu ziran. Gotzai edo Obispo Jaunak eleiz-nagusiko jotzale ta ereslari edo musikalari egin du. Kaseda'tar

Aita bere argirudiakatik eta izatezko jakituriagatik laguntza aundia izango zaigu. Leon Aita befiz bere ingelera eta txamoferazko bi eleakin laxter izango da Misiolari bikaña. Aita Probintziala eskefak ematen dizkitzut lagun auengatik. Bialdu izkiguzu beste bi Aita; ta iru edo lau Anai ta orduntxe ederki.

Gaurkoaz ez besterik. Beste egun batean jafaituko diot, Jaungoikoak ones Jaungoikoak argi zaitzala eta egingo al zaitu Aita ta Artzai ona; auxe nai dizu zure semetan azkeneko belauniko jafirik eskuan muñ egiten dizun

Bera'tar Erroman Ak.

ILO-GABE!

Lo-dagi aufak bere seaska beroan,
lo artzaitxoak bere txabola zafean,
lo-dagi jaunak bere jaun-etxe erosoan,
bidaztiak lo-dagi bide-baztefean. . .
¡ta ni lo-gabe nire oe biguñean!

Lo-dagi mur-mur dagila itxasu otzanak,
lo egaztiak amaren ego-azpian,
lo-dagi baño beltzez estalita aranak,
lore usaitsuak lo-dagi loretegian. . .
¡ta ni lo-gabe emen nire oe gurian!

Ator, lo ezti ori, nire begieta,
ator maitekoñ ire besarka ezti-az
laztan nazaken oraindik gaua dek-eta.
Ire altzoan eguzkiak bere izpi-az
esna nazala goizean bizmen befiaz.

Ire musua bai-lezaiokek ukatu
gau eztiraño dantz-az ta jolas bizian
ibili danai, naiz ta nega-ñez eskatu
ire laztan bat. Utzi zak bere oyian
bere bañengo kez-az bufuka gofian.

Ez, bañon, iñoiz ukatu ire laz-ana
eguna lar ta neketan igaro-ostean
bere begiak gauan atsege iregana
zuzentzen ditun gaxoai. Afats luzean
ba, çutziko-ote nauk logabe nire oean?

Ator egaka ba, nire oe albora
etof-oi-dan bezela gotuts Goikoa
nega-ñez dagon aufaren seaskatxora.
Atof edatu nire gain gaur ire egoa . . .
ta amak aufari lez eman niri pa beroa.

Bai-lezake egin negar eskale gaxoak
aterik-ate dabilenean eskean.

¿Ez al-da baña, benetan zoruna loak
ganbara zafan edo bide baztefean
bere besotan gozoki artzen dunean?

A ugatik bere kabira txoritxo lez,
ta amaren bulaf eztira legezt aurtxoa
ire altzora etofi oi-dek negafez
iñun arkitu ezin lezaken beroa
an arki-nairik, eskalejumezurtz gaxoa

¡Eriotz antzoi! Eu aiz gizon-atsedena
eriotza dan lez onarentzat emaitza.
Ator, emaikek ire besotan kemena,
egunez jasan dezantzat giza-ekaitza.
Ator, ez izan nirekin ain biotz-gaitza.

Lo-dagi aurak bere seaska beroan,
lo artzaitxoak bere txabola zafean,
lo-dagi jaunak bere jaun-etxe erosoan,
bidaztiak lo-dagi bide-baztefean...
¡ta ni lo-gabe nire oe biguñean!

Lo-dagi mur-mur dagila itxasu otzanak
lo egaztiak amaren ego-azpian,
lo-dagi baño beltzez estalita aranak
lore usaitsuak lo-dagi loretegian...
¡ta utziko ote-nauk logabe oe gurian!

Jauregi'tar Koldobika.

IDAZTI (LIBURU) ARTU BERIAK

Musica Popular Vasca.—Resurrección M. de Azkue. *Bilbao*

De Sintaxis euskérica.—Altube'tar Seber. *San Sebastián*.

Fonética Vasca.—D. Resurrección M. de Azkue *Bilbao*.

Bakoitzari Beria.—*Irun*.

Ufengoan edo auetaz zerbait esango degu

Bear diran Eliz-baimenarekin.

* ZERUKO ARGIA	2,50	* Erbesterao utsik	3,50	*
Itzaldiakin	3,50	Itzaldiakin	4,50	

Iruña'n, Kaputxinoen Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan.